

Kontakizun poliedrikoa

14 urterekin irakasle bat manifestazio batean korrika ikusi nuen eta bere atzetik paisanozko polizi bat pistola eskuan zuela....

1979an ere Varela komandantea hil zutenean bertan nintzen lehengusu batzuekin, hilketa ondoren ikastolara joan ginen normaltasun osoz...

1980ean Frantziskotarren konbentuan sendotzako taldeetan parte hartzen hasi nintzen

1982an Mirentxu Eloseguren bahiketa salatzeko manifestazioan parte hartu nuen tolosar gehiengoak bezala, baina herritar batzuk bahiketa haren alde zeudela ikusi nuen....

1983an Lasa eta Zabala bahitu zituztenean Tolosako herria poliziak hartu zuen; ikastetxea gindoazenean tanketa pila ikusi genituen kaleetan zehar eta lehenengo aldiz pankarta bat egin genuen arratsaldeko manifestazioan parte hartzeko. Udalak deituriko manifestazioan parte hartzen genuenean manifestazio alternatibo bat agertu zen gure aurrean eta bertan, guk goizean eginiko pankarta zegoen eta manipulatuak sentitu ginen.

Gero eta argiago nuen indarkeri ekintzak ezin genituela onartu eta edozein motetako ekintza gertatzen zenean triangelu plazan antolatzen ziren kontzentrazio isiletan parte hartu nuen, ez beti egia esateko, beldurra sentitzen zelako....

Unibertsitatean hasi nintzenean pisukide batek aipatu zidan ea prest egongo nintzatekeen gure pisuan ETako norbait ezkutatzeko eta ordurako argi nuen erantzuna....

San Frantzisko elizan ezagutu nuen Mattin Amondarainek deitu zidan Elkarrin parte hartzera gonbidatuz.....

Guzti honen aurrean konturatzen naiz nire bizitzan zehar ikusitakoaren aurrean, ez nuela beti modu egokienean jokatu, beldurra,...axolagabekeria,...komoditatea,...

Nire jokaera honek norbait mindu duela argi daukat, bakarrik utzi dudala indarkeriaren bat sufritu ondoren, beste batzuetan babesa eskaini diet baina badakit bakarrik sentitu diren pertsona asko egon direla eta beraiengana gerturatzea nuela eta ez nuela egin.